

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

609/2021 Foru Agindua, azaroaren 9koa, «TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan aplikatzen diren kenkarien aurrerakina» izena duen KTB eredua onetsi eta hura aurkezteko modua eta epea ezartzen dituena.

Uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauk, TicketBAI betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurriei buruzkoak, behin betiko ezarri zituen bai TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzeko kenkaria eta bai txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, betiere pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzearen.

Irailaren 7ko 5/2021 Foru Dekretu-Arauk, TicketBAI obligazioa borondatez betetzea sustatzeko kenkarien aurrerakin likido bat ezartzen duenak, aipatutako 4/2021 Foru Dekretu-Arauan aurreikusitako kenkariak aurreratzeo aukera jasotzen du, bere izenak dioen bezala. Horren bidez ahalbidetu nahi da kenkari horiek inbertsio eta gastuak egiten diren unera aurreratzea modu likidoan, eta hori egitea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarengatik, sozietateen gaineko zergarengatik eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarengatik aurreko lehen lau zergaldietan ordaindutako zenbatekoen kargura, betiere baldin eta zergaldi horiek autoliquidatzeko epea lehen aurrerakina eskatu baino lehen amaitu bada. Muga ordainketa horien zenbatekoa izango da. Era horretan, kenkariak aurreratzea errazteko, itzuli egiten dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarengatik, sozietateen gaineko zergarengatik edo establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarengatik aurreko zergaldietako autoliquidazioetan ordaindutako zenbatekoak, kasuak kasu.

Aurreratu daitekeen gehieneko zenbatekoa ezin da izan 4/2021 Foru Dekretu-Arauren 1. eta 2. artikuluetan araututako kenkarien zenbatekoa baino handiagoa, azken horretatik, betiere, zenbateko hauek kenduta: aipatutako kenkari gehituengatik jada kendu diren zenbatekoak, eta TicketBAI kenkariagatik eta txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkariagatik aplikatutakoak. Era berean, kontuan izanik aurrerakin horiek lehendik ordaindutako zergen kargura egingo direla, bide honetatik guztira itzuliko den zenbatekoak muga bat izango du, alegia, aurreko zergaldietan sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan izan diren kuota efektiboak; gainera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan, aurreko tartekian aipatutako muga aplikatzeaz gain –kasu honetan, kuota likidoei dagokie-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

Orden Foral 609/2021 de 9 de noviembre por la que se aprueba el modelo KTB «Anticipo de deducciones para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI» del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, así como la forma y plazo de su presentación.

El Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes de fomento de la implantación voluntaria de la obligación TicketBAI, estableció de forma definitiva las deducciones para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI y la incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI en los impuestos sobre la renta de las personas físicas, sobre sociedades y sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente.

El Decreto Foral-Norma 5/2021, de 7 de septiembre, por el que se establece un anticipo líquido de las deducciones para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI, establece, como su propia denominación indica, la posibilidad de anticipar las deducciones previstas en el referido Decreto Foral-Norma 4/2021. De esta manera, se pretende posibilitar el anticipo líquido de las citadas deducciones al momento en que se realicen las inversiones y los gastos, el cual se hará con cargo a los impuestos sobre la renta de las personas físicas, sobre sociedades y sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, abonados en los cuatro períodos impositivos inmediatos anteriores cuyo plazo de presentación de autoliquidaciones haya finalizado con anterioridad a la presentación de la primera solicitud de anticipo, y por el importe máximo de dichos abonos. De esta manera, se facilita el anticipo de las deducciones mediante la devolución del impuesto sobre la renta de las personas físicas, sobre sociedades o sobre la renta de no residentes para los establecimientos permanentes, según el caso, correspondiente a las autoliquidaciones de períodos impositivos previos.

El importe máximo susceptible de ser anticipado no puede exceder de la cuantía de las deducciones reguladas en dichos artículos 1 y 2 del Decreto Foral-Norma 4/2021, minorada en los importes ya deducidos por dichas deducciones incrementadas, así como por las deducciones TicketBAI y para la transformación digital del comercio minorista ordinarias. Asimismo, teniendo en cuenta que dichos anticipos se realizan con cargo a impuestos abonados previamente, el importe total a devolver por este medio tendrá también como límite las cuotas efectivas de los períodos impositivos previos en los impuestos sobre sociedades y sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente; en el caso del impuesto sobre la renta de las personas físicas, además de un límite equivalente al previsto en el inciso anterior, en este caso relativo a las

na-, beste bat aplikatuko da, hain zuzen ere, aurreko zergaldietan jarduera ekonomikoengatik izandako etekinei kuota osoan dagokien zatia.

Aurrerakin likido hori ezin bada egin, osorik edo zati batean, aurretik zergarik ordaindu ez delako, aurreratu gabeko kenkariak inbertsioa edo gastua egin den zergaldiko kuota osoaren gainean aplikatuko dira, osorik edo zati batean, 4/2021 Foru Dekretu-Arauan xedatutako era arruntean. Modu korrelatiboan, aurrerakin likidoa izan duten kenkariak ezin izango dira kasuan kasuko zergaren autolikidazioaren kuota osotik kendu.

Aurrerakina aplikatuko zaie bai 2021., 2022. eta 2023. urteetan egindako inbertsio eta gastuei eta bai 2020an egindako-
ei, azken kasu horretan, lehen aipatutako 4/2021 Foru Dekretu-Arauren lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoari jarraituz.

Aipatutako 5/2021 Foru Dekretu-Arauk artikulu bakarren 8. apartatuan ezartzen du kenkariaren aurrerakina zergadunak eskatu ondoren egingo dela. Orobat, dio eskaerak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar direla, eta haietan aurrerakinaren xede izan daitezkeen inbertsio edo gastuen zenbatekoa adierazi behar dela.

Horrez gain, ezartzen du Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko dituela kenkariaren aurrerakina eskatzeko eredia eta hura aurkezteko epeak eta moduak, bai eta haren aplikazio aurreratuarekin lotutako beste alderdi batzuk ere. Bereziki, eskaerak aurkezteko azken eguna finkatuko du.

Foru agindu honek aurrerakina eskatzeko erabili beharreko KTB eredia onesten du, baita 5/2021 Foru Dekretu-Arauren artikulu bakarreko 8. apartatuan aurreikusitako gainerako alderdiak ere.

Zehazki, bi KTB eredu bereizten ditu: bata, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadunek erabili beharrekoa, eta bestea, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek erabili beharrekoa.

Forua agindu hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31ra bitarteko epea ezartzen du eredia aurkezteko.

Denbora tarte horretan zergadunek KTB eredu bat baino gehiago aurkeztu dezakete, hilean bat gehienez. Era horretan, kenkariaren aurrerakina inbertsio eta gastuak egiten diren unera egokitu nahi da, ahal den neurrian.

Kenkari aurreratuen itzulketa banku transferentzia bidez egingo da zergadunak adierazitako kontura, KTB eredia aurkeztu den hilabetea amaitu eta hurrengo hamabost egunen barruan gehienez.

Eskaera «Zergabidea» plataforma erabiliz egin behar da, eta eskaerari ez zaio dokumentariorik erantsi behar.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. KTB eredia onestea.

Bat. Onetsita geratzen da «TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzeko kenkariaren aurrerakina. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga» izena duen KTB eredia, foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen dena.

Bi. Onetsita geratzen da «TicketBAI betebeharra borondatez betetzea sustatzeko kenkariaren aurrerakina. Sozietateen gaineko zerga eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten

cuotas líquidas, se aplica también otro referido a la parte de las cuotas íntegras correspondientes a los rendimientos de actividades económicas de los periodos impositivos previos.

En el supuesto de que no se pueda proceder a este anticipo líquido, en todo o en parte, por falta de impuesto previo abonado, las deducciones no anticipadas se aplicarán, en todo o en parte, sobre la cuota íntegra correspondiente al periodo impositivo en que se lleve a cabo la inversión o gasto correspondiente, de la forma ordinaria según lo dispuesto en el citado Decreto Foral-Norma 4/2021. De manera correlativa, las deducciones generadas que hayan sido objeto de anticipo líquido no podrán deducirse de la cuota íntegra de la autoliquidación del impuesto correspondiente.

El anticipo es aplicable tanto a las inversiones y gastos efectuados en los años 2021, 2022 y 2023, como a aquellos efectuados en 2020, en este último caso, en los términos previstos en las disposiciones adicionales primera y segunda del Decreto Foral-Norma 4/2021 citado anteriormente.

El apartado 8 del artículo único del citado Decreto Foral-Norma 5/2021, prevé que el anticipo de deducciones se efectuará previa solicitud de la o del contribuyente, especificándose que las solicitudes se presentarán a través de medios electrónicos y en ellas se consignará el importe de las inversiones o gastos susceptibles de acogerse a dicho anticipo.

Además, regula que la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas establecerá mediante orden foral el modelo de solicitud de anticipo de las deducciones y los plazos y formas de presentación, así como otros aspectos relacionados con su aplicación anticipada, y en particular, la fecha límite de presentación de solicitudes.

La presente orden foral aprueba el modelo KTB de solicitud de anticipo, junto con el resto de aspectos previstos en el mencionado apartado 8 del artículo único del Decreto Foral-Norma 5/2021.

Concretamente, diferencia dos modelos KTB, uno a utilizar por las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas, y otro a utilizar por las y los contribuyentes del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente.

Establece un periodo de presentación del modelo comprendido entre la entrada en vigor de la presente orden foral y el 31 de diciembre de 2023.

Se establece la posibilidad de que durante este periodo las y los contribuyentes puedan presentar más de un modelo KTB, con un máximo de uno al mes. De esta manera, se pretende acomodar en la medida de lo posible el anticipo de las deducciones a la realización de las inversiones y los gastos.

La devolución de las deducciones anticipadas se realizará mediante transferencia bancaria a la cuenta designada por la o el contribuyente, en un plazo no superior a quince días desde el último día del mes en que se presentó el modelo KTB.

La presentación se debe realizar desde la plataforma «Zergabidea», sin que se deba adjuntar documentación alguna a la solicitud.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo KTB.

Uno. Se aprueba el modelo KTB «Anticipo de deducciones para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI. Impuesto sobre la renta de las personas físicas», que se adjunta como anexo I a la presente orden foral.

Dos. Se aprueba el modelo KTB «Anticipo de deducciones para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBAI. Impuesto sobre sociedades e impuesto sobre la renta

ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga» izena duen KTB eredu, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasotzen dena.

2. artikulua. KTB ereduaren eremu subjektiboa.

KTB ereduak aurkezteko aukera izango duite pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta egiten dituzten inbertsio eta gastuek bi kenkari hauek aplikatzeko eskubidea ematen badute: TicketBai betebeharrak borondatez betetzea sustatzeko kenkaria, TicketBai betebeharraren borondatezko ezarpena sustatzeko presazko zerga neurri buruzko uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. artikuluan aipatua, eta txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkari gehitua, TicketBai betebeharrak borondatez betetzea sustatzeko, aipatutako foru dekretu-arauaren 2. artikuluan arautua.

Horretarako, beharrezkoa izango da zergadunak, aurreko lau zergaldietako batean gutxienez, zerga horien autoliquidazioak aurkeztea eta autoliquidazio horien kuota likidua edo efektiboa, kasuan kasu, positiboa izatea. Gainera, zergaldi horietako autoliquidazioak aurkezteko epeak amaituta egon behar du lehen KTB ereduak aurkeztu baino lehen.

3. artikulua. KTB ereduaren xedea.

Bat. KTB ereduaren bidez posible da aurreko 2. artikuluko lehen paragrafoan aipatzen diren kenkariak aurreratzea, aurkeztutako autoliquidazioetan jada aplikatu diren kenkariaren zenbatekoak eta 2020ko ekitaldian aplikatutakoak kenduta.

Baldin eta 2020ko ekitaldian sozietateen gaineko zergaren zergadunek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren hogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotako kenkaria aplikatu badute, edo, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren hogeita hamaseigarren xedapen gehigarrian eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarrian jasotako kenkaria aplikatu badute, hurrenez hurren, eta, orobat, baldin eta hiru zerga horien zergadunek 2020ko ekitaldian txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria aplikatu badute, hain zuzen ere, maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Aruak, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurri buruzkoak, 15. artikuluan jasotakoa, 2020ko ekitaldian gauzatutako inbertsio eta gastuei dagokien aurreratu daitezkeen kenkariaren zenbatekoa kalkulatzeko, 2020ko ekitaldian aplikatutako kenkariaren zenbatekoak deskontatuko dira, aipatutako 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan jasotakoaren arabera.

Bi. Aipatutako 5/2021 Foru Dekretu-Aruak artikulua bakaurreko 3. apartatuan ezartzen duenez, azken lau zergaldietako bakoitzean aurreratu daitezkeen kenkariak zehazteko, muga hauek hartu behar dira kontuan:

a) Sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, zergaldi horietako bakoitzari dagokien aurreratu daitezkeen kenkariaren zenbatekoa bi hauetatik txikiena izango da:

a') Aurreratu daitezkeen kenkariaren zenbatekoa, aurreko 1. apartatuan jasotakoaren arabera kalkulatu.

de no residentes, rentas obtenidas mediante establecimiento permanente», que se adjunta como anexo II a la presente orden foral.

Artículo 2. Ámbito subjetivo del modelo KTB.

Podrán presentar el modelo KTB aquellas y aquellos contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas, del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, que lleven a cabo inversiones y gastos con derecho a la deducción para el fomento del cumplimiento voluntario de la obligación TicketBai, prevista en el artículo 1 del Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio, de medidas tributarias urgentes de fomento de la implantación voluntaria de la obligación TicketBai, y a la deducción incrementada para la transformación digital del comercio minorista para fomentar el cumplimiento voluntario de la obligación TicketBai, prevista en el artículo 2 del mismo decreto foral-norma.

Para ello será necesario que previamente la o el contribuyente haya presentado al menos en uno de los cuatro periodos impositivos anteriores, cuyo plazo de presentación de autoliquidaciones haya finalizado con anterioridad a la presentación del primer modelo KTB por parte del contribuyente, autoliquidaciones por los citados impuestos con cuota líquida o efectiva, según corresponda, positiva.

Artículo 3. Objeto del modelo KTB.

Uno. Mediante el modelo KTB podrán ser objeto de anticipación las deducciones a que se refiere el primer párrafo del artículo 2 anterior, minoradas en los importes ya deducidos en las autoliquidaciones presentadas y en los importes de las deducciones practicadas en el ejercicio 2020.

Cuando en el ejercicio 2020 los contribuyentes del impuesto sobre sociedades hayan aplicado la deducción prevista en la disposición adicional vigesimosegunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, o las o los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, hayan aplicado, respectivamente, las reguladas en la disposición adicional trigésima sexta de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en la disposición adicional décima de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, así como cuando las y los contribuyentes de los tres impuestos citados hayan aplicado en el ejercicio 2020 la deducción para la transformación digital del comercio minorista prevista en el artículo 15 del Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del COVID-19, la cuantía de las deducciones susceptible de ser anticipada correspondiente a las inversiones y gastos realizados en dicho ejercicio 2020 se determinará descontando los importes de las deducciones aplicadas en dicho ejercicio 2020, de conformidad con lo dispuesto en las disposiciones adicionales primera y segunda de dicho Decreto Foral-Norma 4/2021.

Dos. De conformidad con lo previsto en el apartado 3 del artículo único del citado Decreto Foral-Norma 5/2021, para determinar las deducciones susceptibles de ser anticipadas en cada uno de los cuatro últimos periodos impositivos deberán tenerse en consideración las limitaciones siguientes:

a) En el impuesto sobre sociedades y en el impuesto sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente, el importe de las deducciones susceptible de ser anticipado correspondiente a cada uno de dichos periodos impositivos será el menor de los dos siguientes:

a') El importe de las deducciones susceptible de ser anticipado, determinado con arreglo a lo previsto en el apartado 1 anterior.

b') Zergaldiko kuota efektiboaren zenbatekoa.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, zergaldi horietako bakoitzari dagokionez aurreratu daitezkeen kenkariaren zenbatekoa hiru hauetatik txikiena izango da:

a') Aurreratu daitezkeen kenkariaren zenbatekoa, aurreko 1. apartatuan jasotakoaren arabera kalkulatua.

b') Jarduera ekonomikoen etekinei kuota osoan dagokien zatia. Zenbateko hori kalkulatu da etekin horiei zergaldiko oinarri likidagarri orokorrari dagokion batez besteko karga tasa aplikatuta, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 75. artikuluko 2. eta 3. apartatueta eta 77. artikuluan jasotakoa kontuan hartuta.

c') Zergaldiko kuota likidoaren zenbatekoa.

Hiru. Uztailaren 27ko 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. eta 2. artikuluetan jasotakoaren arabera aplikatutako kenkariaren eta artikulua honetan jasotakoaren arabera aurreratutako kenkariaren baturak inoiz ere ezingo du gainditu zergadunek egindako inbertsio eta gastuei dagozkien kenkariaren zenbatekoa.

Lau. Aurreratzin diren kenkariak ezingo dira kengarriak izan aipatutako 4/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. edo 2. artikuluan, kasuan kasu, aurreikusitako terminoetan.

Hala ere, aipatutako 5/2021 Foru Dekretu-Arauaren artikulua bakarreko 2. eta 3. apartatueta aurreikusitako mugengatik, gertatzen bada inbertsio edo gastu jakin batzuei dagokienez aurreratu litezkeen kenkariak ezin direla aurreratu ez osorik ez zati batean, aurreratu gabeko kenkariaren zatia kengarria izango da 1. edo 2. artikulua horietan, kasuan kasu, aurreikusitako terminoetan.

4. artikulua. KTB eredia aurkezteko epeak.

Bat. Foru agindu hau indarrean jartzen denetik 2023ko abenduaren 31ra bitartean aurkeztu beharko dira KTB ereduak.

Epe hori amaitutakoan, ezingo da kenkariaren aurrerakinik eskatu, ez eta KTB eredia aurkeztu ere.

Bi. Aurreko lehen apartatuan aurreikusitako epean, zergadunek aurrerakin eskaera bat baino gehiago aurkeztu ahal izango dute KTB ereduaren bidez, aurretik aurkeztutako eskaeretan adierazi ez diren inbertsio eta gastu berriak gehitzeko.

Hiru. Zergadunak ezin izango du KTB eredu bat baino gehiago aurkeztu hilean. Hilabetearen barruan beste KTB eredu bat aurkeztu bada, eredu berria aurkezteko, zergadunak lehendik aurkeztutakoa baliogabetu beharko du.

5. artikulua. KTB ereduaren informazioaren edukia.

Eskaeran adierazi behar da zein den KTB eredia aurkeztu arte egin diren eta aurreko 2. artikuluko kenkariak aplikatzea ahalbidetzen duten inbertsio eta gastuen zenbateko metatu osoa, aurreratuta jaso nahi dena.

Ereduko gainerako datuak automatikoki lortuko dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga aitortzeko lehenetik aurkeztutako autolikidazioetatik.

6. artikulua. KTB eredutik ondorioztatzen diren itzulketak.

KTB ereduaren aurkezpenetik ondorioztatzen diren itzulketa banku transferentzia bidez egingo da zergadunak adierazitako kontura, eredia aurkeztu den hilabetea amaitu eta hurrengo hamabost egunen barruan gehienez.

b') El importe de la cuota efectiva del periodo impositivo.

b) En el impuesto sobre la renta de las personas físicas, el importe de las deducciones susceptible de ser anticipado correspondiente a cada uno de dichos periodos impositivos será el menor de los tres siguientes:

a') El importe de las deducciones susceptible de ser anticipado, determinado con arreglo a lo previsto en el apartado 1 anterior.

b') La parte de la cuota íntegra correspondiente a los rendimientos de actividades económicas, que será el resultado de aplicar a dichos rendimientos el tipo medio de gravamen correspondiente a la base liquidable general del periodo impositivo considerando lo previsto en los apartados 2 y 3 del artículo 75 y en el artículo 77 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

c') El importe de la cuota líquida del periodo impositivo.

Tres. La suma de las deducciones aplicadas con arreglo a lo previsto en los artículos 1 y 2 del Decreto Foral-Norma 4/2021, de 27 de julio anteriormente citados, y de las anticipadas con arreglo a lo previsto en este artículo, en ningún caso podrá exceder del importe de las deducciones que correspondan a las inversiones y gastos realizados por las y los contribuyentes.

Cuatro. Las deducciones que hayan sido anticipadas no podrán ser objeto de deducción en los términos previstos en el artículo 1 o 2 del citado Decreto Foral-Norma 4/2021, según corresponda.

No obstante, cuando, como consecuencia de los límites previstos en los apartados 2 y 3 del artículo único del Decreto Foral-Norma 5/2021 citado, las deducciones susceptibles de ser anticipadas correspondientes a unas determinadas inversiones o gastos no puedan ser objeto de anticipo, parcialmente o en su totalidad, la parte de deducciones no anticipadas sí será deducible en los términos previstos en dichos artículos 1 o 2, según corresponda.

Artículo 4. Plazos de presentación del modelo KTB.

Uno. La presentación de los modelos KTB deberá realizarse entre la entrada en vigor de la presente orden foral y el 31 de diciembre de 2023.

Una vez finalizado dicho plazo no se podrá solicitar el anticipo de las deducciones, ni presentar el citado modelo KTB.

Dos. Las y los contribuyentes podrán presentar durante el plazo previsto en el apartado uno anterior más de una solicitud de anticipo mediante el modelo KTB, para adicionar nuevas inversiones y gastos no consignados en solicitudes presentadas anteriormente, a los efectos de anticipar deducciones.

Tres. La o el contribuyente no podrá presentar más de un modelo KTB al mes. Si durante el mes, se hubiera presentado otro modelo KTB, para presentar el nuevo modelo, la o el contribuyente deberá anular el presentado previamente.

Artículo 5. Contenido de la información del modelo KTB.

En la solicitud se consignará el importe total acumulado de las inversiones y los gastos efectuados hasta el momento de presentación del modelo KTB que den derecho a las deducciones previstas en el artículo 2 anterior, y cuyo anticipo se pretende solicitar.

El resto de los datos del modelo se obtendrán automáticamente de las autoliquidaciones previamente presentadas por los impuestos sobre la renta de las personas físicas, sobre sociedades y sobre la renta de no residentes que operen a través de establecimiento permanente.

Artículo 6. Devoluciones derivadas del modelo KTB.

La devolución resultante de la presentación del modelo KTB se realizará mediante transferencia bancaria a la cuenta designada por la o el contribuyente, en un plazo máximo de quince días desde el último día del mes de presentación del modelo.

7. artikulua. *KTB eredia aurkezteko eta identitatea frogatzeko moduak.*

Bat. KTB eredia internet bidez aurkeztu behar da, «Zergabidea» plataforma erabiliz, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

«Zergabidea» plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialaren bitartez ere iritsi daiteke bertara, <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna> helbidean sartuta.

Bi. KTB eredia aurkezten dutenen identitatea frogatzeko, sistema hauetako bat erabiliko da:

a) Sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritutako sistemak.

b) Zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatuetan oinarritutako sistemak.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak bere araudiari jarraituz ematen duen pasahitz operatiboa.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko azaroaren 9a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(7282)

Artículo 7. *Formas de presentación del modelo KTB y acreditación de la identidad.*

Uno. El modelo KTB se deberá presentar a través de Internet, desde la plataforma «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

La plataforma «Zergabidea» está disponible en el portal <https://zergabidea.gipuzkoa.eus>. También se puede acceder a la misma a través de la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna>.

Dos. La acreditación de la identidad de las personas presentadoras del modelo KTB podrá efectuarse utilizando:

a) Sistemas basados en certificados electrónicos, reconocidos o cualificados, de firma electrónica.

b) Sistemas basados en certificados electrónicos reconocidos o cualificados de sello electrónico.


c) La clave operativa emitida por la Diputación Foral de Gipuzkoa de conformidad con lo dispuesto en su normativa reguladora.

Disposición final única. Entrada en vigor y aplicación.

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 9 de noviembre de 2021.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(7282)


 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzko Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna</p>	<p><i>TicketBai obligazioa borondatez betetzeak dakartzan kenkariaren aurrerakina / Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga</i> Anticipo de deducciones por cumplimiento voluntario TicketBai / Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas</p>	<p>KTB Kenkariback</p>
	<p>Ekitaldia / Ejercicio</p>	

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN	
IFZ / NIF	Deiturak eta izena / Apellidos y nombre

KENKARIAREN KALKULUA / CÁLCULO DE LA DEDUCCIÓN	
01	Egindako inbertsioak eta gastuak Inversiones y gastos realizados
02	Muga finkoa Límite fijo
03	Muga aldakorra (bi hauetan handiena: negozio zifraren zenbateko garbiaren %1 edo 1.500,00) Límite variable (el mayor de 1% del importe neto de la cifra de negocios o 1.500,00)
	Negozio zifraren zenbateko garbia Importe neto cifra negocios
04	Kenkariaren oinarria (01., 02. eta 03. laukietatik txikiena). Base de deducción (la menor de 01, 02 y 03)
05	Kenkaria (04. laukiaren %60). Deducción (60% de 04)
06	Dagoeneko kendutakoa (07+08+09) Deducido anteriormente (07+08+09)
07	2020ko errenta aitortuena En declaración de renta de 2020
08	2021eko errenta aitortuena En declaración de renta de 2021
09	Kenkariback KTB ereduaren En modelo KTB Kenkariback
10	Aplikatzeko dagoen kenkaria, aurreratu daitekena (05-06) Deducción pendiente de aplicar que se puede anticipar (05-06)

KENKARIAREN AURRERAKINA / ANTICIPO DE LA DEDUCCIÓN					
	Epealdia Periodo	Errenta Renta	Errenta Renta	Errenta Renta	Errenta Renta
11	Jardueraren etekin garbia Rendimiento neto de la actividad				
12	Batez besteko karga tasa – Oinarri likidagarri orokorra Tipo medio de gravamen – Base liquidable general	%	%	%	%
13	Jardueraren etekina x batez besteko karga tasa (11x12). Rendimiento actividad x TMG (11x12)				
14	Kuota likidoa Cuota líquida				
15	Muga (13. eta 14. laukietatik txikiena). Límite (la menor de 13 y 14)				
16	Kontsumitu gabeko muga Límite no consumido				
17	Aplikaturako kenkaria, aurreratu kobratuko dena Deducción aplicada que se cobrará anticipadamente				
18	Guztira aplikaturako kenkaria, aurreratu kobratuko dena (17. laukien batura) Deducción total aplicada que se cobrará anticipadamente (suma casillas 17)				
19	Geroko errenta aitortuena aplikatzeko dagoen kenkaria (10 - 18) Deducción pendiente de aplicar en futuras declaraciones de renta (10 - 18)				

EMAITZA / RESULTADO	
Aitortuaren emaitza – ITZULKETA Resultado de la declaración - DEVOLUCIÓN	

 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzko Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna</p>	<p><i>TicketBai obligazioa borondatez betetzeak dakartzan kenkariaren aurrerakina / Sozietate Zerga eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga</i> Anticipo de deducciones por cumplimiento voluntario TicketBai / Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de No Residentes</p>	<p>KTB Kenkariback</p>
	<p>Ekitaldia / Ejercicio</p>	

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN	
IFZ / NIF	Izena edo sozietatearen izena / Nombre o razón social

KENKARIAREN KALKULUA / CÁLCULO DE LA DEDUCCIÓN	
01	<i>Egindako inbertsioak eta gastuak</i> <i>Inversiones y gastos realizados</i>
02	<i>Muga finkoa</i> <i>Límite fijo</i>
03	<i>Muga aldakorra (bi hauetan handiena: negozio zifraren zenbateko garbiaren %1 edo 1.500,00)</i> <i>Límite variable (el mayor de 1% del importe neto de la cifra de negocios o 1.500,00)</i>
	<i>Negozio zifraren zenbateko garbia</i> <i>Importe neto cifra negocios</i>
04	<i>Kenkariaren oinarria (01., 02. eta 03. laukietatik txikiena).</i> <i>Base de deducción (la menor de 01, 02 y 03)</i>
05	<i>Kenkaria (04. laukiaren %60).</i> <i>Deducción (60% de 04)</i>
06	<i>Dagoeneko kendutakoa (07+08+09)</i> <i>Deducido anteriormente (07+08+09)</i>
07	<i>2020ko sozietateen aitortpenean</i> <i>En declaración de IS de 2020</i>
08	<i>2021eko sozietateen aitortpenean</i> <i>En declaración de IS de 2021</i>
09	<i>Kenkariback KTB ereduan</i> <i>En modelo KTB Kenkariback</i>
10	<i>Aplikatzeko dagoen kenkaria, aurreratu daitekena (05-06)</i> <i>Deducción pendiente de aplicar que se puede anticipar (05-06)</i>

KENKARIAREN AURRERAKINA / ANTICIPO DE LA DEDUCCIÓN					
	<i>Epealdia</i> <i>Periodo</i>	<i>Sozietateak</i> <i>IS</i>	<i>Sozietateak</i> <i>IS</i>	<i>Sozietateak</i> <i>IS</i>	<i>Sozietateak</i> <i>IS</i>
14	<i>Kuota efektiboa</i> <i>Cuota efectiva</i>				
16	<i>Kontsumitu gabeko kuota efektiboa</i> <i>Cuota efectiva no consumida</i>				
17	<i>Aplikaturako kenkaria, aurreratu kobratuko dena</i> <i>Deducción aplicada que se cobrará anticipadamente</i>				
18	<i>Guztira aplikaturako kenkaria, aurreratu kobratuko dena (17. laukien batura)</i> <i>Deducción total aplicada que se cobrará anticipadamente (suma casillas 17)</i>				
19	<i>Geroko sozietateen aitortpenetan aplikatzeko dagoen kenkaria (10 - 18)</i> <i>Deducción pendiente de aplicar en futuras declaraciones de IS (10 - 18)</i>				

EMAITZA / RESULTADO	
<i>Aitortpenaren emaitza - ITZULKETA</i> Resultado de la declaración - DEVOLUCIÓN	